

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Ford-ek ez zuen dena asmatu



WWW.SERIOUSWHEELS.COM

Ezkerrean, Henry Ford eta Ford T modeloa, 1908an sortu zenean haizetako-garbigailurik ez zuena. Eskuinean, egungo garbigailuak, 1903an asmatu zituztenetik aldaketa gutxi izan dituztenak.



WWW.HISPANICPRWARE.COM

NEW YORK (AEB), 1902. Mary Andersonek (1866-1953) hiri handira bidaiatu zuen lehenengoz. Alabaman jaioa, Anderson Kalifornian bizi zen eta mahastizain lanetan nahiz arrantzoko beste behar batzuetan aritzen zen. Ez zuen sekula hainbeste auto batean ikusi. Egun hartan eguraldia goibel zen New Yorken eta konturatu zen euri-lanbroak ez ziela gidariei bidea ikusten uzten. Leihatila ireki eta haizetako eskuz garbitu behar zuten, oinezkoen eta gainerako gidarien segurtasunaren kaltetan.

Asmatzaile gisa ez zuen esperientziarik, eta ez zekien lehenago beste batzuk ere saiatu zirela auto-etako haizetakoak garbitzeko gailuak asmatzen, alperrik. New Yorketik itzuli zenean, Mary Andersonek garbigailua asmatu zuen diseinatzaile baten laguntzaz, eta Fresnoko enpresa bati asmakizuna ekoizteko eskatu zion. 1903an haizetako-garbigailua patentatu zuen. Auto barrutik eragiteko aukera ematen zuen palanka bat zen, kanpoko muturrean gomaz estalitako marraza zuena.

1905ean gailuaren eskubideak Kanadako enpresa handi bati saltzen saiatu zen, baina Andersonen eskaera baztertu zuten. Haien ustez, garbigailuak ez zuen balio komertzialik, eta ez zegoen bermatuta salmentek ekoizpen kostuak estaliko zituztenik.

1908ko abuztuan Ford T modeloak industria osoa eta, bereziki, automobilgintza irauli zituen. Autoek luxuzko produktu izateari utzi zioten. Salmentek izugarri egin zuten gora. Baina Henry Forden autoek oraindik ez zuten haizetakoak garbitzeko tramankulurik. Andersonek tarteka royaltyak jaso zituen, baina ez zuen dirutzarik bildu bere ideiarri esker, eta mahastietan lanean jarraitu zuen. 1920an iraungi zen garbigailuaren patentea eta orduantxe hasi zen haren diseinua auto guztien oinarrizko ekipamenduaren parte izaten. 1953an hil zen Anderson, 87 urte zituela, 50 urte lehenago izan zuen burutazio hark merezi zuen ordaina jaso gabe.

Arrastoak

Aragoiko Neolitoko kobazulo nagusia alferrik galdu da

CHAVESEKO KOBAZULO (Huesca) 1975ean industen hasi ziren. Duela 6.000 urteko arrasto garrantzitsuak aurkitu zituzten han, eta Iberiar Penintsulako Neolitoko aztarnategi nagusietako bihurtu zen. Berriki, jabeek zorua berdindu eta 3.000 metro kubo lur atera dituzte, bertan animaliak gorde-

tzeko. Adituen esanetan, aztarnategiaren maila neolitikoa erabat hondatu dute, eta oraindik ez dakite maila paleolitikoaren zati bat salbatu ote den. 35 urtetan arkeologoek aztarnategiaren 110 metro koadro industea lortu dute, baina ez dugu sekula jakingo gainerako 3.000 metroek zer gordetzen duten.

WWW.DIARIODELALTOARAGON.ES

